

## BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 4839

*AGINDUA, 2025eko urriaren 15ekoa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektorialaren programa hirugarren herrialdeetan sustatu eta komunikatzeko laguntzen 2026. urteko deialdia.*

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2115 Erregelamenduaren 43. artikulua xedatzen duenez, estatu kide guztiek esku hartu beharko dute mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorean, eta, 57. artikulua eta hurrengoek, berriz, sektore horretan egin beharreko esku-hartze motak eta horiek egiteko Europar Batasunak emango duen finantza-laguntza jasotzen dituzte. Erregelamendu horretan, Europar Batasuneko estatuak nekazaritza-politika erkidearen esparruan egin behar dituzten plan estrategikoetarako (NPEaren plan estrategikoak) laguntzari buruzko arauak ezarri dira, eta 1305/2013 (EB) eta 1307/2013 (EB) erregelamenduen indargabetzea xedatu da; laguntza hori Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuko da.

Ondoren, Espainiako Erresumaren Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) Plan Estrategiko Nazionala 2023-2027 argitaratu da, eta haren helburua da garapen jasangarria lortzea nekazaritza-rekin, elikagaiekin eta landa-eremuekin loturikoetan gizartearen elikagai-segurtasuna bermatzeko sektore lehiakor baten eta landa-eremu bizi baten bidez. Europako Batzordeak 2022ko abuztuaren 31n onartu zuen plana, C (2022) 6017 Erabakiaren bidez, eta, ondoren, 2023ko abuztuaren 30ean aldatu zuen, C (2023) 5746 Erabakiaren bidez.

Nekazaritza Politika Erkideari buruzko arau berriak indarrean sartzearen ondorioz, Espainiako mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorearentzako laguntza-programak utzi egingo dio politika horren neurrietatik aparte egoteari eta plan estrategikoaren parte izango da, hots, esku-hartze bat gehiago izango da, Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektoriala deritzon horretan.

Estatu-mailan, urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretua argitaratu da, eta haren bidez arautu da Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruko Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektoriala.

Autonomia-esparruan, 66/2024 Dekretua argitaratu zen (66/2024 Dekretua, 2024ko maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa ezartzeko eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzeko dena).

Bestalde, agindu honen bidez, deialdia egiten da urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuan ezarritako laguntzak emateko, baina laguntza horien gastua 2027ko Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren aurrekontuari egotziko zaio. Horrenbestez, laguntza horiek eraginkorrak izateko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2026ko Aurrekontu Orokorretan behar besteko kreditua eduki behar da, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditenteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan.

Laguntza-lerro hau sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago, zeina Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko abenduaren 28ko Aginduaren

bidez onartu baitzen, eta laguntzen du bertan aurreikusitako helburua lortzen, hau da, nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren industriari laguntzea, horretarako Europar Batasuneko, estatuko eta autonomia-erkidegoko neurriak artikulatuz.

Ondorioz, hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Deialdia

Hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuak sustatzeko eta komunikatzeko ekintzak eta programak egiteko laguntzen 2026. urterako deialdia onartzea. Deialdiaren oinarriak agindu honen I. eranskinean daude jasota.

##### 2. artikulua.– Baldintza.

Agindu hau eraginkorra izateko, kreditu egokia eta nahikoa izan beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorretan, behin betiko ebazpenaren unean, hala xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako gastu-espeditenteak alde aurretik izapidetzea arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan.

##### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko nekazaritza-gaietan eskumena duen sailburuari, hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

##### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 15a.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,  
AMAYA BARREDO MARTÍN.

## I. ERANSKINA

## 1. oinarria.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuak sustatzeko eta komunikatzeko ekintza eta programetarako laguntzen deialdia egitea, betiere 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean garatzen badira.

2.– Laguntza horiek egokitu egingo dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduan, urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuan (Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektoriala Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan arautzen du) eta 2024ko maiatzaren 28ko 66/2024 Dekretuan (Nekazaritza Politika Bateratuaren 2023-2027ko Plan Estrategikoa Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeari eta landa-eremuen ezaugarriei buruzkoa) xedatutakora.

## 2. oinarria.– Ekintza-motak eta programen iraupena.

1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 Erregelamenduan (EB) 58.1.k) artikuluan aipatutako esku-hartzea garatuko da, programen bidez, urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 2. artikuluan zehaztutakoaren arabera. Programa horien barruan, ekintza edo azpi-ekintza bat edo hainbat egin ahalko dira, aipatu errege-dekretuaren XX. eranskinean zerrendatuak, mahastizaintza eta ardogintzaren sektorearen lehiakortasuna hobetzeko eta merkatuak ireki, dibertsifikatu eta finkatzeko.

2.– Halako ekintzak programa baten barruan gauzatu beharko dira, hala zehazten baita urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 2.30 artikuluan, eta ekintza horiek 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean garatu beharko dira.

3.– Hirugarren herrialde bateko merkatuko laguntzaren gehieneko iraupena, urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako definizioaren arabera, urtebetekoa izango da. Salbuespena izango da, hala ere, 4. apartatuan kalitate bereiziko figura baten bidez (JDB edo AGB) babestutako ardoetarako adierazitakoa.

4.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 Erregelamenduan (EB) 58.1 artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, JDB edo AGB figura duten ardoen irteera komertzialak finkatzeko hirugarren herrialdeetan garatzen diren sustapen- eta komunikazio-ekintzek gehienez ere hiru urteko iraupena izango dute (epe luzaezina). Muga hori onuradun jakin baterako aplikatuko da, hirugarren herrialde bateko merkaturak. Horretarako, kontuan hartuko da honako hauen konbinazioa: herrialdea, eskualdea, ekintza, azpi-ekintza eta xede-publikoa.

## 3. oinarria.– Onuradunak eta betekizunak.

1.– Hirugarren herrialdeetan sustapen-neurriak finantzatzeko laguntza-eskabideak honako hauek aurkez ditzakete:

a) Ardogintzako enpresak, baldin eta urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen badituzte. Eskabidea aurkezteko eguna baino lehen eratuta egon behar dute enpresek.

b) Mahastizaintzako eta ardogintzako ekoizleen erakundeak, eta erakunde horiek biltzen dituzten elkarteak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1308/2013 Erregelamenduan (EB) 152. eta 156. artikuluei jarraituz definituak.

c) Lanbidearteko erakundeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1308/2013 Erregelamenduaren (EB) 157. eta 158. artikuluen arabera definituak eta maila nazionalen aitortuak, eta Espainian aitortuak Nekazaritzako elikagaien lanbidearteko erakundeak arautzen dituen abenduaren 30eko 38/1994 Legean xedatutakoari jarraituz.

d) Erakunde profesionalak: halakotzat hartuko dira gehienbat ardoaren sektorean jarduten dutenak, eta estatuan aitortuta daudenak indarreko araudiarekin bat etorritik, betiere estatutueta helburuen artean sustapen-jarduerak egitea jasota badute.

e) Ardogintzaren adierazpen geografiko babestuen eta jatorri-deitura babestuen kudeaketa- eta ordezkari-organak eta haien elkarteak.

f) Bi ekoizle edo gehiago biltzen dituzten aldi baterako elkarteak edo elkarte iraunkorrak, baldin eta beren helburuen artean ardoa sustatzeko eta merkaturatzeko ekimenak garatzea badute.

g) Kooperatibek berek edo kooperatibakideek egindako ardoak merkaturatzen dituzten kooperatibak.

h) Ardogintzaren sektoreko enpresez bakarrik osatutako irabazi asmorik gabeko elkarteak, helburuen artean ardoak kanpoan sustatzea dutenak.

i) Produktuak eta merkatuak hirugarren herrialdeetan sustatu eta komunikatzeko jardura garatzeko lege ezarritako eskumena duten erakunde publikoak, baldin eta erakunde hori ez bada laguntzaren onuradun bakarra.

Ekoizleak biltzen dituzten aldi baterako elkarteak edo elkarte iraunkorrek ordezkari bat izendatu beharko dute, ahalmen nahikoa izango duena elkarteak laguntzen onuradun den aldetik izango dituen betebeharrak konplitzeko, hala ezartzen baita Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluan. Elkarteko kide guztiak onuradun izango dira, eta elkarte hori ezingo da desegin, harik eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 43. artikuluan xedatutako preskripzio-epea igaro arte.

2.– Onuradunek, langile-kopuruaren, enpresaren tamainaren eta azken urteetako lan-esperientziaren arabera, frogatu beharko dute gaitasun tekniko nahikoa dutela hirugarren herrialdeekiko merkataritza-harremanen eskakizunei aurre egiteko, eta badaukatela nahikoa baliabide finantzario eta langile bermatzeko neurria ahalik eta modurik eraginkorrenean aplikatzen dela. Horretaz gain, bermatu beharko dute aski produktu dutela, kantitate nahiz kalitatean, egindako sustapenaren ondorioz sor daitezkeen eskaerei epe luzeko erantzuna ziurtatzeko, behin sustapena bukatuta.

3.– Ezingo dira dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak, ez eta krisi-egoeran daudenak ere, estatuak krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauetan definitutakoaren arabera (Batzordearen 2014/C 249/01 Komunikazioa, 2014ko uztailaren 31koa). Debekurik ez duela egiaztatzeko, manu bereko 6. apartatutik 9.era bitartean (biak barne) xedatutakoari jarraituko zaio.

4. oinarria.– Produktu eta herrialde onargarriak.

1.– Produktuak sustatzeko esku-hartzeak egin ahal izango zaizkie urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren XXI. eranskinean zehaztuta dauden kalitatezko produktu izanik zuzeneko kontsumorako direnei, baldin eta kategoria hauetako batean sartzen badira:

a) Jatorri-deitura babestua duten ardoak.

b) Adierazpen geografiko babestua duten ardoak.

c) Ardogintzako mahats-barietatea (edo barietateak) zehaztua duten ardoak.

2.– Irteera komertzialak finkatzera bideratutako programak soilik jatorri-deitura eta adierazpen geografiko babestua duten ardoei buruzkoak izango dira.

3.– Sustapen-neurriak egiteko modukoak izango dira hirugarren herrialde guztiak.

4.– Sustapen-neurriak egiteko hautagarritzat joko dira eskabide-inprimakian jasotako markak, «sustapen-programa honetan sartutako markak» izeneko atalean, hain zuzen ere.

5. oinarria.– Ekintzen eta programen ezaugarriak.

1.– Programek oso argi definituta egon behar dute, eta, bereziki, zehaztuko da zer helburu zehatz dituzten, zer hirugarren herrialde edo merkatu duten helburu, zer ardo mota landuko dituzten, zer ekintza eta azpi-ekintza gauzatu nahi diren eta haietako bakoitzak zer kostu izango duen gutxi gorabehera.

2.– Proposatutako estrategia koherentea izan behar da programarako ezarritako helburuekin.

3.– Onuradunak bermatuko du proposatutako eragiketaren kostuek ez dituztela gaindituko merkatuaren prezio normalak, eta kostuen moderazioa betetzen dela. Kostuak justifikatzeko, onuradunarekiko independenteak diren enpresen aurrekontuak aurkeztuko dira.

4.– Sustapen-mezuak produktuaren berezko ezaugarrietan oinarrituko dira, eta aintzat hartzen dituzten hirugarren herrialdeetako araudi aplikagarriara egokitu beharko dira.

5.– Jatorri-deitura babestua eta adierazpen geografiko babestua duten ardoen kasuan, produktuaren jatorria sustapenaren parte moduan adierazi beharko da.

6.– Aurreko 4. eta 5. zenbakietakoa eragotzi gabe, marken erreferentziak sustapenaren parte izan daitezke, hala badagokio.

7.– Sustapeneko materialak Europar Batasunaren ikurra eramango du, eta, gainera, honako adierazpen hau jaso beharko du: «Europar Batasunak finantzatua». Ikurra eta finantzaketaren adierazpena Batzordearen 821/2014 Betearazpen Erregelamenduan (EB) ezarritako ezaugarri teknikoen arabera jarriko dira.

6. oinarria.– Eskabideak aurkeztea eta epeak.

1.– Hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuak sustatzeko eta komunikatzeko ekin-tzetarako eta programetarako 2025eko abuztuaren 1etik 2025eko irailaren 15era aurkeztutako laguntza-eskabideak onartuko dira.

2.– Eskabideak euskadi.eus egoitza elektronikoan aurkeztuko dira, oinarri honen 3. apartatuan adierazitako helbideen bitartez.

3.– Eskabideak, justifikazioak eta gainerako ereduak nola izapidetu jakiteko xehetasunak euskadi.eus egoitza elektroniko honetan eskura daitezke:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1223004>

Eskabidearen osteko izapideak, bide elektronikoz, honen bidez egiten dira:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Eskaera ordezkari baten bitartez egiten bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkaritza. Ordezkaritza hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikokoan inskribatu ahal izango da, helbide honen bidez:

<https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

5.– Laguntza-eskabidearen ereduaren oinarritzko edukia eskuragarri dago <https://www.euskadi.eus> helbidean, eta agindu honen I. eranskina da.

7. oinarria.– Espedientearen fase desberdinetan aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

• Pertsona fisikoentzat:

- Eskabidea aurkeztu aurreko ekitaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.
- Eskaera aurkeztu den dataren aurreko ekitaldiari dagokion ekonomia-jardueren eranskina.

• Pertsona juridikoentzat:

- Legezko ordezkariaren NANA.
- Enpresaren eratze-eskritura eta, hala badagokio, gerora erregistratutako eskrituren kopia, enpresaren egungo egoera frogatzen dutenak.
- Legezko ordezkariaren ahalordetze-eskritura.
- Enpresaren estatutu erregistratuak eta, hala badagokio, gerora erregistratutako eskrituren kopia, enpresaren egungo egoera frogatzen dutenak.
- Eskaera aurkeztu den dataren aurreko ekitaldiari dagokion sozietateen gaineko zerga.

• Bien kasuan:

- Sustapen-programa honetarako bakarra eta eskusiboa den kontuaren titulartasuna ziurtatzen duen agiri eguneratua, banku-erakundeak egina.
- Azken 3 urteetako balantzeak eta galdu-irabazien kontuak, ikuskatuta, legez horretara behartuta badaude.
- Sustapen-programaren memoria deskriptibo zehatza, herrialdeka, eskualdeka, ekintzaka eta azpi-ekintzaka.
- Xede-taldearen taula, azpi-ekintza bakoitzeko eta eskatutako herrialdeka eta eskualdeka.
- Proposatutako kostuek merkatuko prezio normalak gainditzen ez dituztelako justifikazioa, eskatutako gastuaren zenbatekoa edozein dela ere (hiru aurrekontu identifikagarri eta konparagarri, ondasun edo zerbitzu berari buruzkoak, hiru hornitzaile gaitu desberdinenak, euren artean eta onuradunarekiko independenteak, moduluka mugatutako kostuen edo kostu sinplifikatuen kasuetan izan ezik).
- Nahitaezko deklarazioak, urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren XXIII. eranskinaren arabera (905/2022 Errege Dekretua, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektoriala arautzen duena).

2.– Aldaketa-eskabide guztiak, aldaketa txikiak barnean direla, urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 67. artikuluan deskribatuta dauden bezala, azpi-ekintza egin baino 15 egun lehenago aurkeztu beharko dira gutxienez, 6.3. oinarrian deskribatutako bitartekoen bidez.

3.– Onartutako alderantzizko misioak egitea gutxienez 4 egun lehenago jakinarazi beharko da, lekuan bertan kontrola egin ahal izateko, hala dagokionean.

4.– Programaren parte baten ordainketa eskatzen bada, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- PDF artxibo pertsonalizatua.
- Laguntza-eskabidean jasotako ekintzen laburpen-txostena, azpi-ekintzatan banakatuta (fitxa bat azpi-ekintza bakoitzeko).
- Fakturak, ordainketa-ziurtagiriak eta aurkeztutako gastuen euskarri materiala.
- Lortutako emaitzen ebaluazioa, onuradunak programan hasiera batean aurreikusi dituen helburuak betetzen direla egiaztatu ahal izateko.
- Kontu bakar eta eskusiboaren bankuko kontu-laburpena.
- Kontu bakarrari lotutako txartelen bankuko kontu-laburpena.
- Konpentsazio-ordainketen kasuan, faktura igortzen duenaren ziurtagiria.

5.– Programaren azken ordainketa eskatzen bada, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- PDF artxibo pertsonalizatua.
- Laguntza-eskabidean jasotako ekintzen laburpen-txostena, azpi-ekintzatan banakatuta (fitxa bat azpi-ekintza bakoitzeko).
- Fakturak, ordainketa-ziurtagiriak eta aurkeztutako gastuen euskarri materiala.
- Lortutako emaitzen ebaluazioa, onuradunak programan hasiera batean aurreikusi dituen helburuak betetzen direla egiaztatu ahal izateko.
- Auditoretza-txostena edo, 150.000 eurotik gorako laguntza izanez gero, finantza-egoeren ziurtagiria.
- Kontu bakar eta eskusiboaren bankuko kontu-laburpena.
- Kontu bakarrari lotutako txartelen bankuko kontu-laburpena.
- Konpentsazio-ordainketen kasuan, faktura igortzen duenaren ziurtagiria.
- Onuradunaren ziurtagiria, onartutako programaren administrazio- eta kudeaketa-gastuak justifikatzekoa.
- Sustapeneko azpi-ekintzak egiten dituzten langileen gastuen justifikazioa.
- Onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, honako hauei dagokienez:
  - Ez duela laguntza bateraezinik jaso.
  - Ez duela zorrik, itzulketa-prozeduraren ebazpen baten bidez aginduta.

- Sustapen-materiala bat datorrela bai Europa Batasunaren araudiarekin, bai programa garatzen den hirugarren herrialdeko legediarekin, eta, hala badagokio, helmugara iritsi dela egiaztatzeko proba aurkeztu dela.
- Aurkeztu diren programa gauzatzeko gastuak laguntza-eskabidean edo jakinarazitako aldaketetan sartutako ardoen markei bakar-bakarrik dagozkiela.
- Hala badagokio, eskatzaileari lotutako enpresek egindako gastuaren fakturazioari dagokiona.

6.– Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko ditu eskatzailearen NANA, IFKa, AIZ eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituelako ziurtagiriak. Hala ere, eskatzaileak espresuki uka dezake laguntza-eskabidean inplizituki dagoen baimen hori, eta, hala egiten badu, ziurtagiria edo eskatzen zaion agiria aurkeztu beharko du, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

8.– Oinarria.– Kudeatzea eta balorazio-batzordea.

1.– Elikagaien Kalitate eta Sustapenerako Zuzendaritzak du dekretu honetan araututako laguntzak kudeatzeko eskumena. Deialdi hau norgehiagoka-prozeduraren bidez ebatziko da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Prozedura horretan, aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, eta agindu honetan aurreikusitako balorazio-irizpideak aplikatuko zaizkie.

2.– Eskabideak ebaluatu eta baloratzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko hiru bokalek osatuko dute, eta horietako bat enpresa-programaren arduraduna izango da. Beste biak, berriz, Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzako teknikarien artean aukeratuko dira, eta zuzendariaren ebazpen baten bidez izendatuko dira. Ebazpen horrek, era berean, adieraziko du nor izango den idazkaria eta nor batzordeburua. Balorazio Batzordea osatzen duten pertsona guztientzako ordezkioak ere izendatuko dira, aipatutako zuzendaritzako teknikarien artean.

Ebazpen hori banan-banan jakinaraziko zaio laguntzaren eskatzaile bakoitzari, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> helbidearen bidez, lehenengo bilera egin aurretik, bilera egin baino bost egun lehenago gutxienez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan jasotako abstenitzeko eta errekusatzeko eskubideak baliatzen direla bermatzeko.

Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko, arloko adituei eskatu ahal izango die bileretan parte hartzeko eta aholkularitza emateko, beharrezko irizten dionean. Batzorde horren jardunean, behar diren neurriak hartuko dira eskaeren balorazioan parte hartzen duten pertsona guztien interes-gatazkak saihesteko.

3.– Balorazio-batzordeak proiektuen bideragarritasuna aztertu eta espedienteak balioetsi aurretik, Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzako teknikari batek eskabide bakoitza aztertuko du: proiektu bakoitzaren azterketa tekniko eta ekonomikoa egingo du, eta, haren arabera, proiektuak agindu honetako eskakizunak betetzen dituen aztertzeko txosten bat egingo du, batzordeari aurkeztuko diona.

4.– Balorazio Batzordeak ondorengo funtzioak izango ditu:

a) Aurkezten diren eskabide guztiak aztertzea eta aplikatu beharreko araudia betetzen dutenak eta araudia betetzen ez dutenak bereiztea. Halaber, araudia betetzen ez duten eskabideen zerrenda egingo du, eta banan-banan azalduko du zein izan den baztertzeko arrazoia.

b) Aplikatu beharreko araudia betetzen duten proiektuen eskabideak ebaluatzea, hau da, proiektuak eta agindu honetan ezarritako irizpide objektiboen betetze-maila balioestea, laguntza motaren arabera.

c) Egindako ebaluazioaren emaitzak jasoko dituen txostena egitea, laguntzak baloratzeko eta kuantifikatzeko irizpide objektiboetan oinarrituta.

Txostenak eduki hau izango du:

A) Baiesteko gomendioa jasotzen duten eskabideei dagokienez:

– Erakunde onuradunen izena edo sozietatearen izena eta IFKa.

– Diruz lagundu daitekeen inbertsioa, aplikatutako irizpide objektiboak eta laguntzaren ehunekoa.

B) Ezesteko gomendioa jasotzen duten eskabideei dagokienez:

– Erakunde onuradunen izena edo sozietatearen izena eta IFKa.

– Eskabidea ukatzeko arrazoiak.

6.– Balorazio-batzordeak bere funtzionamendu-arau propioak ezarri ahalko ditu. Arau horiek aurreikusi gabeko gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatuko da.

9. oinarria.– Balorazio-irizpideak.

Aurkeztutako eskabideen balorazioa bi fasetan egingo da:

1.– Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzak laguntza-eskabideak aztertuko ditu, atal honekin bat datozen egiaztatze, eta, halaber, honako etapa hauen arabera ezartzen diren ebaluatuko du:

a) Onargarritasuna egiaztatze fasea: egiaztatuko da betetzen direla urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 60. eta 61. artikuluetako betekizunak (905/2022 Errege Dekretua, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-haritze Sektoriale arautzen duena), eta proposatutako kostuek ez dituztela gainditzen merkatuko prezio normalak.

b) Lehenespen-fasea: aurreko fasea gainditu duten programei baino ez zaie aplikatuko. Lehenago aipatutako urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren XXIV. eranskinean (lehenespen-irizpideak) ezarritako irizpideen arabera emango da puntuazioa.

3.– Gainera, aipatutako urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren XXIV - 3. eranskinean ezarritako irizpidean oinarrituta, Euskal Autonomia Erkidegoak erabakitako balorazio-irizpide hauek aplikatuko zaizkio, gehienez ere 50 punturaino:

a) ETEek egindako programak, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EB Gomen-dioarekin bat: 20 puntu.

b) ETEek egindako programak, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomen-dioarekin bat etorri: 10 puntu.

c) JDB edo AGB kalitate-bereizgarriak dituzten produktuak jasotzen dituzten programak: 20 puntu.

d) Ardogintzako mahats-barietatea (edo barietateak) zehaztua duten produktuak jasotzen dituzten programak: 15 puntu.

e) Eskabidearen unean indarrean den ekoizpen ekologikoko ziurtagiria daukaten produktuak jasotzen dituzten programak: 5 puntu.

f) Neurriak ezarri dituztela egiaztatzen duten onuradunek garatutako programak, ingurumena babesten dutenak, eskabidearen unean indarrean diren ingurumen-ziurtagirien bidez egiaztatutakoak. 5 puntu.

4.– Bazter utziko dira 25 puntu lortzen ez dituzten programak.

5.– Aurreko oinarrian deskribatutako balorazio-batzordeak baloratuko ditu aurkeztutako eskabideak.

10.– Oinarria.– Laguntza emateko ebazpen-proposamena.

1.– Nekazaritza eta Landa Garapenaren Sektoreko Konferentziak funtsak banatzeko akordioa lortu ondoren, Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzak, balorazio-batzordearen txostena kontuan hartuta, ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen horretan, dirulaguntza ematea proposatzen den eskatzailea eta dirulaguntzaren zenbatekoa adierazi behar dira.

Gainera, dirulaguntzak emateko espedientean organo kudeatzailearen txostena egongo da, eta txosten horretan jasota geratuko da onuradunek dirulaguntzak jasotzeko betekizun guztiak betetzen dituztela, organo kudeatzailearen esku dagoen informazioaren arabera.

2.– Programa onargarrietan aurreikusitako guztizko aurrekontuak autonomia-erkidego bakoitzari edo, hala badagokio, NBEF organismo autonomoari esku-hartze horretarako hasiera batean esleitu zitzaion finantza-muga gainditzen duen laguntza badakar, honako aukera hauetako bat hautatuko da:

a) Urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 59. artikuluan aurreikusitako gehieneko laguntza ematea, puntuazio-ordenaren arabera, autonomia-erkidego bakoitzerako sustapenaren esku-hartzerako erabilgarri dauden funtsen muga barruan.

b) Urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 59. artikuluan aurreikusitako gehieneko laguntza murriztea, gutxienez % 35eko finantzaketaraino, autonomia-erkidego bakoitzerako sustapenaren esku-hartzerako erabilgarri dauden funtsak agortu arte, puntuazio-ordenaren arabera.

3.– Baldin eta prozeduran interesdunek adierazitakoez bestelako egitateak, alegazioak eta frogak ageri badira edo kontuan hartzen badira, ebazpen-proposamen hori behin-behinekoa izango da, interesdunei jakinaraziko zaie, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Alegazio horiek aztertuta, behin betiko ebazpen-proposamena formulatuko da.

4.– Entzunaldi-izapidea albo batera utz daitekeen kasuetan –ez dagoelako interesdunek adierazitakoez bestelako egitaterik, frogarik edo alegaziorik–, oinarri honen beraren 3. apartatuaren arabera emandako ebazpen-proposamena behin betikoa izango da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoari jarraikiz.

#### 11. oinarria.– Laguntza emateko ebazpena.

1.– Behin betiko ebazpen-proposamena onartu ondoren, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak ebatziko du deialdia. Ebazpen bakarra emango du, eta hor jasoko dira eskatutako zein laguntza emango diren eta zein ukatuko.

2.– Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, Nekazaritza eta Landa Garapeneko Konferentzia Sektorialak funtsak esleitzeari buruz hartutako erabakiaren biharamunetik kontatzen hasita. Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikulua xedatzen duenaren arabera, gehieneko epe hori igaro eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek administrazioaren isiltasunez ezetsizat jo beharko dute dirulaguntza emateko eskabidea.

3.– Aldeko ebazpena emanez gero, onuradunek Eli Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzari jakinaraziko diote, hilabeteko epean, dirulaguntza onartzen dutela, ezarritako baldintzetan, eta egikaritza ona bermatzeko gordailua justifikatuko dute, Batzordearen 2021eko abenduaren 7ko 2022/127 Erregelamendu Delegatuan (EB) aurreikusitako baldintzen arabera, Europar Bata-sunaren finantzaketaren kopuruaren ehuneko 15etik gorako zenbatekoan, programa era egokian egikaritzen dela bermatze aldera. Onarpena jakinarazten ez bada edo egikaritza ona bermatzeko gordailuaren justifikazioa aurkezten ez bada, laguntzari uko egin zaiola ulertuko da, eta, beste izapiderik gabe, espedientea artxibatu egingo da.

4.– Elikadura eta Landa Garapeneko sailburuordeak emandako prozedura-ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari. Administrazio Prozeduraren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera, interesdunak gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango du haren aurka, hilabeteko epean, ebazpena eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, bai ebazpena eman duen organoaren aurrean, bai Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aurrean; azken horrek ebatziko du errekurtoa.

#### 12. oinarria.– Ekintzak eta programak aldatzea.

1.– Hasieran onartutako sustapen-programaren aldaketak aurkeztu ahalko ditu onuradunak, bi motatakoak, hain zuzen:

a) Aldaketa handiak, hau da, aldaketa txikiak ez direnak.

b) Aldaketa txikiak, hau da, atal honen 5. puntuan jasotzen diren xehetasunak dituztenak.

2.– Aldaketa guztiak behar bezala justifikatu eta jakinarazi beharko dira. Oro har, fakturaren datak aldaketaren eskaera-data baino geroagokoa izan beharko du.

3.– Ez da aldaketarik onartuko, baldin eta:

a) Programa onartzeko aurkeztu ziren helburu orokorrak aldatzen badituzte.

b) Onartzeko baldintzetan aldaketarik sortzen badute.

c) Onartutako edo aldatutako programaren aurrekontua murrizten badute, % 20tik gorako aldea eraginez.

d) Programaren egikaritza atzeratzen badute.

e) Lehenespen-fasean laguntza-eskabideak jaso zuen puntuazioan aldaketa eragiten badute, hain zuzen, eskabideak onartuak izateko gutxieneko puntuazioaren azpitik geratzea ekarriko zukeena.

4.– Onuradunak aldaketa handiak aurkeztu beharko ditu, zuzenketari ekin baino gutxienez 15 egun lehenago. Edonola ere, aldaketa-eskabidea aurkezteko muga-eguna 2026ko azaroaren 15a izango da, egun hori barne.

Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzak ebaluatuko ditu aurkeztutako aldaketa handien eskabideak, eta horien emaitza onuradunei jakinaraziko die, bi hilabete baino lehen.

Jakinarazpen hau indibidualki egin ahalko da aldaketa bakoitzerako, edo multzoan aurkeztutako aldaketa guztietarako.

Azpi-ekintza bat ez gauzatzea aldaketa handitzat hartuko da beti.

5.– Aldaketa txikiek ez dute agintaritzaren eskudunaren alde aurreko baimena behar. Azpi-ekintza egin baino gutxienez 15 egun lehenago jakinarazi beharko dira. Edonola ere, aldaketa-eskabidea aurkezteko azken eguna 2026ko azaroaren 15a izango da, egun hori barne.

Aldaketa txikitzat joko dira onartutako programa baten azpi-ekintzen arteko finantza-transferentziak, onartutako edo aldatutako zenbatekoaren gehienez % 20ra arte.

6.– Oinarri honetan xedatutakoa gorabehera, organo eskudunak salbuespenez baimena eman dezake aurreko apartatuetan adierazitako baldintzekin bat ez datozen aldaketak egiteko, ezinbesteko kasuetan edo salbuespeneko inguruabarretan. Salbuespenezko inguruabarrak edo ezinbesteko kausak daudela aitortu ahal izango da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektoriala arautzen duen urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorrira.

7.– Onartutako edo aldatutako aurrekontuak aldatzea dakarten aldaketen ondorioz, emandako dirulaguntza egokitu egin beharko da.

8.– Onartutako aurrekontuak gehitzea dakarten aldaketek ez dute ekarriko onartutako dirulaguntza handitzea.

9.– Onuradunak bere horretan mantenduko du egikaritze onaren bermea gordailutzeko bete-beharra, hasierako dirulaguntzaren gainean kalkulaturako zenbatekoen arabera.

### 13. oinarria.– Finantzaketa.

1.– Sustapen eta komunikazioko ekintzetarako Europar Batasunak izango duen finantza-laguntza ezin izango da izan diruz lagun daitezkeen gastuen % 50etik gorakoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 Erregelamenduaren (EB) 59.7 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Onuradun bakoitzak eskatutako laguntzaren gehieneko zenbatekoa ezin izango da izan sustapeneko esku-hartzera bideratutako aurrekontu osoaren ehuneko 5 baino handiagoa, dagokion finantza-ekitaldirako Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektorialaren finantza-keta-fitxa kontuan hartuta.

### 14. oinarria.– Aurrerakinak.

1.– Onuradunak Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzari auzer diezaioke Europar Batasunaren kontribuzioaren zenbatekoaren ehuneko 80ra irits daitezkeen aurrerakina jasotzeko eskabidea.

2.– Aurrerakina emateko, onuradunak berme bat eratu behar izango du, gutxienez aurrerakinaren zenbateko berean, Eusko Jaurlaritzako organismo ordaintzailearen alde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 Erregelamenduaren (EB) 64. artikulua eta Batzordearen 2021eko abenduaren 7ko 2022/127 Erregelamendu Deletatuaren (EB) IV. kapituluaren arabera, zeinak osatu egiten baitu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2116 Erregelamendua (EB), erakunde ordaintzaileei eta beste organo batzuei, finantza-kudeaketari, kontuen likidazioari, bermeei eta euroaren erabilerari buruzko arauekin. Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian gordailutuko dira bermeak.

#### 15. oinarria.– Ordainketak.

1.– Badago eskatzea Europar Batasunaren urteko kontribuzioa ordainketa bakarrean edo bitarteko ordainketen bidez jasotzeko. Egindako eta ordaindutako ekintzei edo azpi-ekintzei buruzkoak izango dira eskabideak. Ordainketa-eskabide guztiak, aurrerakinaren eskabideak salbu, onargarriak izateko, V. apartatuko 3. puntuan deskribatutako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira.

Bitarteko ordainketek eta aurrerakinaren ordainketak ezin izango dute guztira gainditu Europar Batasunaren ekarpenetik eratorritako diru-erabileren guztizkoaren % 80, hasieran onartutako edo aldatutako programaren aurrekontuari dagokionez.

2.– Xede horretarako soilik den banku-kontu bakar baten bidez egin behar dira ordainketa guztiak, honako hauek izan ezik: mantenu-gastuak, langile propioen gastuak, administrazio-gastuak, sustapen-material gisa erabilitako ardoa, konpentsazio-ordainketak eta egikaritze onaren bermea eratu eta mantentzeko gastuak, NBEFren zirkularrean adierazten den bezala.

3.– Bitarteko ordainketen eskabideak Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzari aurkeztu behar zaizkio, lau hileko aldi bakoitzaren osteko hurrengo hilabetea bukatu baino lehen, urtarilaren 1etik aurrera.

Bitarteko ordainketek eta urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 70. artikuluan aurreikusitako aurrerakinaren ordainketak ezingo dute guztira gainditu Europar Batasunaren ekarpen osoaren ehuneko 80.

4.– Urteroko bakoitzaren ekintzak bukatu ondoren, eta otsailaren 15a baino lehen, onuradunak laguntzaren azken ordainketa eska dezake Elikagaien Kalitate eta Sustapenerako Zuzendaritzan aurrean.

5.– Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzak edota Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsak, gehienez, urtebeteko epean egingo dute ordainketa, ordainketa-eskabidea osorik jasotzen duten egunetik hasita. Epe hori eten egin ahal izango da Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzak egindako jakinarazpenaren bidez, baldin eta informazio gehiago jasotzea edo egiaztapenen bat egitea beharrezkoa dela iritziz gero.

6.– Ordainketa-eskabide guztiekin batera, auditoretza-txosten bat aurkeztuko da, eta, han, epigrafe honen hurrengo apartatuan oro har adierazten diren egiaztapen guztiak jasoko dira gutxienez. 150.000 euroko edo hortik gorako dirulaguntza onartua duten programak badira, txostenak finantza-egoerari buruzko ziurtagiri baten tankera izango du.

Auditoretza-txosten horretan eta finantza-egoeren ziurtagirian, zehaztuko da zer-nolako egiaztapenak egin diren, eta adieraziko dira onuradunak laguntza jaso ahal izateko betekizunak eta arau aplikagarriak betetzen ez dituela pentsarazten duten gertakari eta salbuespen guztiak. Beraz, informazio hori zehatz eta argi eman beharko da, organo kudeatzaileak modua izan dezan

hurrengo apartatuan adierazten diren puntuen gaineko erabakia hartzeko. Betiere, egiaztatutako atal guztietan ateratako ondorioak adieraziko dira, bai eta ez-betetzeak edo aukeratu ezineko gastuak zein diren ere.

Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako kontu-auditore batek egingo ditu bai auditoretza-txostena bai finantza-egoeren ziurtagiria, Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legearen 27. artikuluan adierazitako finantza-bermea ematearren, eta egokiro frogatu beharko du proposatutako gastuak diruz laguntzeko modukoak eta benetakoak direla.

7.– Auditoretza-txostenetan eta finantza-egoeren ziurtagirietan, oro har, honako hauek egiaztatu behar dira:

a) Onuradunak egiazki izandako gastuak izango dira, edo onuradunak erakunde antolatzaile baten esku utzi badu informazio- edo komunikazio-programaren edo haren zatiren baten aplikazioa, erakunde horrek izandako gastuak izan behar dira.

b) Onartutako programaren aurrekontuan agintari eskudunek diruz laguntzeko modukotzat jotzen dituzten gastuak izango dira, programa gauzatzeko beharrezkoak direnak, agintari eskudunak sustapen-programako indarreko azken ebazpenean onartutakoari jarraituz.

c) Aurkeztutako gastuen faktura eta egiaztatutako guztiak bat datoz aplikatzekoa den legeria fiskal eta sozialaren eskakizunekin.

d) Onuradunak bere gain hartutako gastuak egiaztatzen dituzten jatorrizko fakturak dauzka, eta enpresaren erregistroetan daude adierazita.

e) Justifikatzen diren gastuak ordaintzeko, kontu bakar eta eskusiboa erabili da.

f) Ordaintzeko erabilitako kreditu-txartelak kontu bakar eta eskusibo horri lotuta daude.

g) Onuradunak kontu bakar eta eskusiboaren banku-laburpena aurkeztu du, eta han jasota daude justifikatutako ordainketa guztiak, laguntza ordain dakiola eskatzeko oinarri direnak.

h) Hirugarrenen bati edo zerbitzu-hornitzaileei azpikontratutako sustapeneko ekintzak eta azpi-ekintzak justifikatuta daude zein bere fakturarekin eta benetan egindako ordainketaren agiriarekin.

i) Justifikatutako sustapeneko ekintza eta azpi-ekintza guztiak egin dira aldi hautagarriaren barruan, hau da, 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra.

j) Egindako sustapeneko azpi-ekintzetan izandako joan-etorrien bidaia-txartelak edo ontziratze-txartelak aurkeztu dira, oroharreko prezioan aurkeztutako dietenak izan ezik.

k) Egindako sustapeneko azpi-ekintzek euskarri teknikoak dituzte: CDak, argazkiak, liburuak, bideoak, prentsa-oharrak, dastaketa-koadernoak, edo antzekoak, bai eta erabilitako sustapen-materiala helmugara heldu delako ebidentziak ere.

l) Langileen gastuak egiaztatutako guztiak justifikatu dira, kontuan hartuta urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 68. artikuluan eta XXVII. eranskinean adierazitakoa.

m) Aurkeztutako administrazio-gastuetarako, kontuan hartu da urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 68. artikuluan eta XXVII. eranskinean adierazitakoa.

Berrikusitako faktura guztien zerrenda beharko da, eta, hala badagokio, gorabeherak edo diruz laguntzeko modukotzat hartzen ez diren zenbateko partzialak edo guztizkoak adierazita.

Eta 150.000 euroko edo hortik gorako dirulaguntza-eskabideen kasuan, finantza-ziurtagirietan, gainera, honako hauek egiaztatu beharko dituzte:

a) Proposatutako gastuak identifikagarriak eta egiaztagarriak dira: esaterako, kontsignatuta daude sustapen-ekintzak egiten dituen onuradunaren edo erakundearen kontabilitatean, eta zehaztuta daude onuradunari edo erakundeari aplika dakizkiokeen kontabilitate-arauen arabera.

b) Proposatutako gastuak zentzuzkoak eta justifikatuak dira, eta finantza-kudeaketa onaren irizpidea betetzen dute, bereziki ekonomian eta efizientzian.

8.– Era berean, ekintzak teknikoki justifikatzeko, frogabideak aurkezteko eskatu ahal izango zaio onuradunari, sustapen-ekintzak egin izana egiaztatzeko.

9.– Oro har, tributuak diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira, baldin eta onuradunak benetan ordaindu baditu. Inoiz ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko berreskura edo konpentsa daitezkeen zeharkako zergak. Beraz, finantzaketatik kanpo geratuko dira BEZa (balio erantsiaren gaineko zerga) eta IGICa (Kanarietako zeharkako zerga orokorra), kengarriak diren heinean.

10.– Ordainketa-eskaera kasu honetan soilik eman ahal izango da ontzat: onuradunak egiaztatzen duenean egunean dituela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharra ere.

11.– Onuraduna elkarte bat izanez gero, ez da dirulaguntzarik ordainduko baldin eta elkarteko kideren batek aurreko puntuan ezarri diren betebeharrak egunean ez baditu.

16. oinarria.– Diruz lagungarri diren gastuak.

1.– Orokorrean, diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira diruz lagundutako azpi-ekintzaren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, dagokion programaren egikaritzea epean zehar egiten direnak eta onuradunak ordainketa-eskabidea baino lehen ordaintzen dituenak, organo eskudunak ezar ditzakeen salbuespenak salbuespen.

2.– Halaber, diruz lagunduko dira:

a) Onuradunaren administrazio-gastuak, betiere egindako programaren kostu diruz lagungarri guztien % 4 gainditzen ez badute. Gastu horien barruan sartuko dira onuradunaren gastuak, esaterako administrazio eta kudeaketako gastuak (barneko informatika-gastuak, adibidez), idazkaritza-gastuak, kontabilitatea, korrespondentzia, alokairua, komunikazioak, kontsumo arruntak (ura, gasa eta elektrizitatea), mantentze-gastuak eta, hala badagokio, finantza-egoeren ziurtagirien gastuak, urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 70.8 artikuluan jasotakoaren arabera.

Gastu horiek diruz laguntzeko, programaren aurrekontuan partida bereizi moduan aurreikusi behar dira. Justifikatzeko, onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, onartutako programan egindako gastu horiek egiaztatzen dituenak.

Finantza-egoeren ziurtagiriari buruzko kanpoko auditoretzen kostuak diruz lagundu ahalko dira, baldin eta kanpoko erakunde independente eta kualifikatu batek egin baditu.

b) Onuradunak egindako langile-gastuak, filialen bidez, Batzordearen 2021eko abenduaren 7ko 2022/126 Erregelamendu Delegatuaren (EB) 31.7 artikulua arabera, edo agintaritzea eskudunaren baimenaren ostean, ekoizleen erakunde bateko kide den kooperatiba baten aldetik, baldin

eta finantza-programa zehatz bat prestatu, egikaritu edo haren jarraipena egitearekin lotuta eratu badira.

Langileen gastu horien barruan sartuko dira, besteak beste, onuradunak kontratatutako langileen gastuak eta langile iraunkorrek programa betetzen egiten dituzten lanorduekin lotutako gastuak.

Onuradunak kasuan kasuko programarekin lotuta benetan egindako lanak zehazten dituzten egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu. Programa jakin batekin lotutako langileen gastuaren balioa modu independentean ebaluatu eta egiaztatu beharko da, eta ez da izango zerbitzu-mota horretako merkatuko prezio arruntak baino altuagoa.

Onuradunen langile iraunkorrek programa egikaritzearekin lotuta egiten dituzten langile-gastuak zehazte aldera, aplikatu beharreko tarifa kalkulatu da, honako eragiketa honen bidez: programa egikaritzen lan egindako horien artean dokumentatutako urteko azken soldata-gastuak zati 1.720 ordu. Lanaldi partzialen kasuan, modu proportzionalean zehaztuko da.

Langileen gastuen batura ezingo da izan gauzatutako ekintzen diruz lagun daitezkeen kostu guztien % 20 baino gehiago. Ondorioz, gastu horiek behar bezala banakatuta agertu beharko dira aurkezten den programaren aurrekontuan.

Gastu horiek eta beste zenbait diruz laguntzeko baldintzak urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren XXVII. eranskinean jasota daude.

3.– Gastu bat diruz lagunduko da:

a) baldin eta gastua eragiten duen sustapeneko azpi-ekintza programaren urtealdian egin bada, hau da, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, eta

b) baldin eta onuradunak justifikazio-epea bukatu baino lehen ordaindu badu gastua, hau da, otsailaren 15a baino lehen.

4.– Aitzitik, ezingo dira diruz lagundu urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren XXVIII. eranskinean aipatutako kostuak.

17. oinarria.– Laguntza murriztea osorik ez egikaritzeagatik.

1.– Egiaztatzen bada ez dela egikaritu onartutako, edo, kasua bada, aldatutako laguntza-eskabidean jasotako azpi-ekintzaren bat, artikulu honetan ezarritakoa kontuan hartuta ordainduko da laguntza.

2.– Ezinbesteko kausak edo salbuespeneko inguruabarrak direla-eta azpi-ekintza bat edo gehiago gauzatu ez bada, amaierako laguntza murriztuko da proportzio berean, hau da, osorik egikaritu diren banakako azpi-ekintzei dagokien zenbatekoa baino ez da ordainduko.

3.– Ezinbesteko kausak edo salbuespeneko inguruabarrak ez diren arrazoiak direla-eta azpi-ekintza bat edo gehiago egikaritu ez bada, baina eragiketaren/programaren amaierako helburu orokorra bete bada, amaierako laguntza penalizazioz murriztuko da, hasierako edo aldatutako laguntza-eskabidearen barruan dauden eta osorik egikaritu ez diren azpi-ekintzei dagokien zenbatekoaren % 100 kenduta. Hau da, emango den laguntza kalkulatzeko, osorik egikaritu diren banakako azpi-ekintzen zenbatekoari penalizazio hori aplikatuko zaio, eta horren emaitza izango da ordainduko dena.

4.– Ezinbesteko kausak edo salbuespeneko inguruabarrak ez diren arrazoiak direla-eta azpi-ekintza bat edo gehiago gauzatu ez bada, eta, gainera, eragiketaren/programaren amaierako helburu orokorra bete ez bada, ez da dirulaguntzarik emango.

5.– Murrizketa horiek aplikatuz gero, eta aurretik banakako ekintzetarako laguntzarik ordaindu bada, ekintza horiei dagozkien zenbatekoak eta interesak itzultzeko eskatuko da.

18. oinarria.– Bermeak kentzea.

1.– Urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 79. artikuluan aurreikusitako bermea kenduko da, baldin eta organo ordaintzaileak egiaztatzen badu betebeharrak guztiak bete direla eta ondorioztatzen badu aurrerakina baxuagoa dela Batasunak programa honetara bideratutako ekarpenaren benetako gastuak baino.

2.– 11.2 oinarrian aipatzen den bermea, urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 66. artikuluan jasotzen dena, azken ordainketa egin arte egongo da indarrean, eta autonomia-erki-degoko erakunde ordaintzaileak berme hori ezereztea erabakitzen duenean kenduko da.

19. oinarria.– Onuradunen betebeharrak, Europako funtsen bidezko finantzaketaren informazioa eta publizitatea.

1.– Agindu honetan araututako laguntzen onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

2.– NPEPEaren eta Europako laguntzaren informazio-, publizitate- eta ikusgarritasun-betekizunak betetzen direla bermatzeko, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 123. eta 124. artikuluetan jasota baitaude, honako hauetan eman beharko dute NPEPEaren laguntzaren berri:

a) Onuradunaren webgune ofizialean, halakorik edukiz gero, eta sare sozialetako kontu ofizialetan jardunaren deskribapen laburra egingo dute, laguntzaren mailaren proportzioan, helburuak eta emaitzak adierazita, eta Europar Batasunaren finantza-laguntza nabarmenduta.

b) Herritarrei edo parte-hartzaileei zuzendutako eta jardunaren betearazpenarekin lotutako komunikazio-arloko agiri eta materialetan, adierazpen bat jarriko dute erraz ikusteko moduko toki batean, eta hor zehaztuko dute Europar Batasunaren laguntza jaso dutela.

Enblema nabarmenduta agertu beharko da herritarrei jardunen berri emateko prestatzen diren komunikazio-material guztietan, hala nola produktu inprimatuetan eta digitaletan, webguneetan eta horien sakelakoetarako bertsioetan. Ikurrarekin batera honako azalpen hauetako bat agertu beharko da, kasuan kasukoa: «Europar Batasunak finantzatua» edo «Europar Batasunak modu bateratuan finantzatua».

20. oinarria.– Materiala egiaztatzea.

Laguntzaren onuradunek ziurtatu beharko dute programen esparruan sustapenerako eta komunikaziorako prestatutako materiala bat datorrela bai Europar Batasuneko araudiarekin bai programa garatuko den hirugarren herrialdeko legediarekin. Horretarako, onuradunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio agintaritzari eskudunari eta, han, adierazi beharko du materiala egokia dela, behar den araudi aplikagarria betetzen dela eta hartzaileak hirugarren herrialdean erabilitako sustapen-materiala helmugara heldu delako ebidentziak badaudela, helmugako herrialdeaz beste merkatu batean erabil ahal bada behintzat.

## 21. oinarria.– Bateriaezintasuna.

1.– Agindu honen bidez deitzen diren laguntzak bateraezinak izango dira xede bereko beste edozeinekin, eta, bereziki, «Lehiatu Sustapena» laguntzen programan aurreikusitako laguntzekin.

2.– Halaber, deialdian jasotako laguntzak 905/2022 Errege Dekretuaren 81. artikuluan ezarritako bateragarritasun-arauen bidez arautuko dira (905/2022 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektoriala arautzen duena). Zehazki, ezin izango dira laguntza hauen kargura finantzatu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren babesean NBEF funtsaren bidez finantzatutako neurriak edo esku-hartzeak, ezta Europar Batasuneko finantza-tresnek finantzatutako beste neurri batzuk ere, eta laguntza horiek ezin izango dira inola ere metatu edo osatu Eusko Jaurlaritzak edo foru-aldundiek helburu bererako finantzatutako beste edozein laguntzarekin.

## II. ERANSKINA

MAHASTIZAINZAKO ETA ARDOGINTZAKO ESKU-HARTZE SEKTORIALA SUSTATZEKO  
FORMULARIOAREN EDUKIA

Eremu generikoak:

- Titularra.
- Identifikazio-agiriaren mota.
- Zenbakia.
- Izena (pertsona fisikoek soilik).
- Lehen abizena (pertsona fisikoek soilik).
- Bigarren abizena (pertsona fisikoentzat soilik).
- Sexua (pertsona fisikoentzat soilik).
- Erakundearen izena (pertsona juridikoak soilik).
- Telefono finkoa.
- Telefono mugikorra.
- Helbide elektronikoa.
- Ordezkaria.
- Lurralde historikoa.
- Jakinarazpen- eta komunikazio-bidea:
  - Abisuak jasotzeko posta-helbidea.
  - Abisuak jasotzeko helbide elektronikoa.
  - Abisuak jasotzeko mugikorra.
- Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza.

I.– Onuradunaren formularioa.

1.– Onuraduna.

Aurkezpena

1.2.– Onuradun-mota.

1.3.– Onuradun berria da? Bai/Ez.

1.4.– Enpresaren ezaugarriak.

1.5.- Enpresa-motak.

1.6.– Enpresa/enpresa-taldea da? Bai/Ez

1.7.– Banku-kontuaren kodea, programarako bakarra eta eksklusiboa.

1.8.– Enpresaren datuak:

- Zerga-egoitza.
- Enpresa eskatzailearen kapital sozialaren egungo egitura.

2.– Baliabide nahikoak dituela egiaztatzea.

2.1.– Aurkeztu al dituzte balantzea eta galdu-irabazien kontua?

3.– Gaitasun teknikoa egiaztatzea.

3.1.– Programa egikaritzeko baliabideak (langileak eta bitartekoak) deskribatzea.

3.2.– Kanpoko eta barruko egitura definitzea (sailak eta eginkizunak).

3.3.– Baliabideak berezkoak edo besterenak diren zehaztea.

3.4.– Hainbat egikaritze-erakunde hautatu badira, adierazi horietako bakoitzak aplikatuko dituen jarduerak.

3.5.– Programa egikaritzeko gaitasunaren justifikazioa (esperientzia sustapenean).

4.– Erantzun komertzialerako gaitasuna.

4.1.– Ardoaren aniztasuna eta zein gune geografikotan dagoen.

4.2.– Merkaturatze-bolumena eta azken hiru urteetan ustiatutako bolumena (litrotan).

4.3.– Erantzun komertzialerako prest dagoen merkaturatze-bolumena (bolumena, litrotan, programaren xede diren herrialdeetarako).

4.– Sustatuko den ardoa egiten den upategia, ardo-mota eta marka.

II.– Programako formularioa.

1.– Programaren ezaugarriak (herrialdeka banakatuta).

1.1.– Produktua(k):

- Ardoa.
- Likore-ardoa.
- Ardo apartsua.
- Kalitatezko ardoa apartsua.
- Kalitatezko ardoa apartsu aromatikoa.
- Ardo txinpartaduna.
- Ardo txinpartadun gasduna.
- Pasa bihurtutako mahatsen ardoa.

Gehiegi heldutako mahatsen ardoa.

Ardo ekologikoak.

Ardo desalkoholizatuak.

Ardo partzialki desalkoholizatuak.

905/2022 Errege Dekretuaren (59.1 artikulua) kategoria (905/2022 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektoriala arautzen duena):

Jatorri-deitura babestua duten ardoak.

Adierazpen geografiko babestua duten ardoak.

Ardogintzako mahats-aldaera zehaztua duten ardoak.

1.2.– Helmuga: Helmuga berri batera zuzendutako programa da? Bai/Ez.

1.3.– Iraupena: Aurreko finantza-ekitaldian aurkeztutako programa baten jarraipena da? Bai/Ez.

2.– Xedea (herrialdeka banakatuta).

3.– Estrategia (herrialdeka banakatuta).

4.– Ekintzak (herrialdeka banakatuta).

4.1.– Deskribapen zehatza:

4.2.– Aurreikusitako egutegia:

5.– Xede-publikoa (herrialdeka/ekintzaka/azpi-ekintzaka banakatua).

6.– Mezuak (herrialdeka banakatua).

7.– Eragin aurreikusgarria eta neurtzeko metodoa (herrialdeka banakatua).

– Eragin aurreikusgarria zehaztu eta zenbatatea, emaitza errealistatan:

– Emaitzak eta eraginak neurtzeko erabiliko diren adierazleak eta metodoa (kuantitatiboa edo kualitatiboa) zehaztea:

8.– Interes nazional eta komunitarioa.

9.– Aurrekontua.

9.1.– Laburpen-taula (herrialde/ekintza/azpi-ekintza/eskualde/xede-publiko/egutegiaren arabera banakatua).

9.2.– Kostuen moderazioa.

10.– Beste datu esanguratsu batzuk.

III.– Nahitaezko adierazpenak:

1.– Proposamena egiten duen erakunde edo enpresaren datuak:

- Izena.
- IFZ.
- Helbidea.
- Telefonoa eta faxa.
- Harremanetarako pertsona.

Hau adierazten du:

Jarraian agertzen den taulako datuak bat datoz ardoa hirugarren herrialdeetan sustatzeko esku-hartzearen esparruan garatutako programekin:

Finantza-ekitaldia:	2024			2025			2026			2027		
Deialdia	2023			2024			2025			2026		
Herraldea	Azpi-ekintza	Eskualdea(k)	Xede-taldea(k)	Azpi-ekintza	Eskualdea(k)	Xede-taldea(k)	Azpi-ekintza	Eskualdea(k)	Xede-taldea(k)	Azpi-ekintza	Eskualdea(k)	Xede-taldea(k)

Azalpen-oharra: laguntza onartzean, egiaztatu egingo da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 Erregelamenduaren (EB) 58.1.2 artikuluan ezarritako muga.

Ondorengo taulan islatutako datuen arabera, 2XXX. urtean eta laguntzaren gehieneko iraupenaren ondoretarako, aurkeztutako programaren xedea halako berri bat da:

Eskualdea(k)	Azpi-ekintza(k)	Xede-taldea(k)

\* Markatu X batekin dago(z)kiona(k)

Proposamena egiten duten erakundearen edo enpresaren konpromisoa, programaren iraunaldi osorako finantzaketa bermatzeko.

Ez jaso izana finantzaketa bikoitzik edo laguntza bateraezinik.

Bateriaezina izan daitekeen laguntza bat baino gehiago eskatu eta eman bada, erakundeak edo enpresak horietako bat aukeratu eta gainerakoak berariaz baztertu beharko ditu. Inplikaturako administrazio guztietako erakunde eskudunari jakinarazi beharko dio, bateraezintasunen ondoretarako.

\_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_ (a)

(1) \_\_\_\_\_

Sin.: \_\_\_\_\_

(1) Presidentea, zuzendaria, gerentea, etab.

#### IV.– Laburpen-aurrekontua.

Ekintza	Azpi-ekintza	Eskualdea	Xede-taldea	I. ekitaldia I. urterokoa	II. ekitaldia II. urterokoa	III. ekitaldia III. urterokoa	Guztira
a)							
b)							
c)							
d)							
e)							
f)							
Administrazio-gastuak* (Gehienez kostu diruz lagungarri guztien % 4)							
Langile-kostuak (% 20)							

\* Finantza-egoeren ziurtagiriaren kostuak sartu ahalko dira.

#### V.– Erantzukizunpeko adierazpena.

– Erantzukizunpeko adierazpena: laguntza-eskabidean adierazitakoa egia da, eta eskabidearekin batera aurkeztutako agiriak benetakoak dira; faltsutasunik edo datu okerrik azalduz gero, erantzukizun osoa bere gain hartuko du, eta ez du alegatuko ez zekiela faltsutasun edo datu oker horiek eragin dituzten gertaeren berri.

– Erantzukizunpeko adierazpena: konpromisoa hartzen du proiektua gauzatu dela egiaztatzeko behar den dokumentazio guztia Eusko Jaurlaritzaren eta Europar Batasunaren esku jartzeko.

– Erantzukizunpeko adierazpena: proposatutako programaren iraupen osorako finantzaketa bermatzen du.

– Erantzukizunpeko adierazpena: ez da krisian den enpresatzat hartzen, betiere krisialdian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Erkidegoaren zuzentarauetan jasotako definizioaren arabera, estatuak krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauekin bat etorri (Batzordearen 2014/C 249/01 Komunikazioa, 2014ko uztailaren 31koa).

– Erantzukizunpeko adierazpena: ez dago ezein berreskuratze-aginduren eraginpean, Europako Batzardeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

– Ezin izan bada lortu lekukotza judizialik, ziurtagiri telematikorik edo datu-transmisiorik, edo administrazio-ziurtagiririk, jarraian aipatzen diren betekizunak betetzen direla egiaztatzen duenik, erantzukizunpeko adierazpena, honako hauei buruzkoa:

- Egunean du EAEko Administrazioak eta haren mendeko enteek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan dirulaguntzak itzultzeagatiko edo zehapenengatiko betebeharren ordainketa.

- Ez duela jaso, epai irmo bidez, laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren kondenarik, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurra eta legearen aurkako ordainarazpena edo hirigintza-delitua.

- Ez dago zehatuta –ez zigor- ez administrazio-arloan– dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ere, sexu-diskriminazioan erortzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

- Ez duela eskatu borondatezko konkurtso-deklaraziorik, ez dagoela ezein prozeduratan kaudimengabetzat deklaraturik, ez dagoela konkurtsoan deklaraturik –salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek–, ez dagoela esku-hartze judizialaren pean edo ez dagoela desgaituta Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

- Ez duela eragin, kausaren batean errudun deklaraturik izateagatik, Administrazioarekin egindako ezein kontraturen suntsiarazpen irmorik.

- Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daudela lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunari buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu publikodunen jokabide-kodea eta interes-gatazkak arautzen dituen Eusko Legebiltzarraren ekainaren 26ko 1/2014 Legea. Edo ez direla Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

- Ez duela zerga-egoitza araudiaren arabera zerga-paradisua gisa sailkatutako lurralde edo herrialderen batean.

- Bete duela desgaitasuna duten pertsonentzat legez gorde behar den kuota, edo egiaztatu duela hori bete dadin neurri alternatiboak abian jarri izana.

- Pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, ez dauka zehapenik Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

- Elkarteen kasuan, ez daudela nahasita Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuen kausetan; edo, ez daudela nahasita ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egoteagatik inskribatzeko administrazio-prozedura etetea eragin duten kausetan, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, baldin eta ebazpen judizial irmorik ematen ez bada, zeinaren arabera kasuan kasuko inskripzioa egin ahal izango baita dagokion erregistroan.

– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen aplikazio-eremuan sartuta egonik (markatu dagokiona):

Enpresak, kontabilitateko araudiaren arabera, ezin du galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu eta, beraz, Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek igorritako ziurtagiri hau aurkeztu du, baldintza betetzen duela egiaztatzeko (enpresa hornitzailearen kobrantza aurreraturako edozein finantzaketa gorabehera):

Urteko azken kontuetako auditoretza-txostenetik ondorioztatzen bada hornitzaileei egin beharreko ordainketen epeak % 100 bete direla: Auditoreak igorritako ziurtagiria, bere auditoretza-lanean urteko kontuen memoriaren edukia zuzentasunaren gaineko ebidentzia lortzeko prozedurak egin direla adierazten duena, 13.3 bis artikuluko baldintza betetzen dela ziurtatzeko.

Ziurtagiri hori ematea ezinezkoa bada (ikuskatutako urteko konturik ez dagoelako edo kontu horiek hornitzaileei ordaintzeko epeen betetze-portzentajea % 100etik beherakoa delako): Ziurtagiria, «Adostutako Prozeduren Txosten» batean oinarrituta, dirulaguntzaren eskabidea egin edo ordainketa justifikatzeko orduan (dagokiona) baldintza betetzen dela egiaztatzeko (ziurtagiriak sei hilabeterako balioko du).

Enpresak, kontabilitateko araudiaren arabera, galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu dezake, eta, beraz, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 26. artikulua arabera gainerako kasuen eraginpean dago, honako hau adieraziz:

Ez dago azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.3.bis artikuluko ezin kasutan.

– Erantzukizunpeko adierazpena (markatu dagokion laukitxoak):

• Enpresak 50 langile edo gehiagorentzako enplegua ematen du, eta, berdintasun-plana egin eta aplikatzeari dagokionez, Emakumeen eta gizonen berdintasun efektiborako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluko 2. apartatuak xedatutakoa betetzen du.

• Enpresak 50 langile baino gutxiagorentzako enplegua ematen du, eta enpresak ez dauka berdintasun-plana egin eta aplikatu beharrik, Emakumeen eta gizonen berdintasun efektiborako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluko 5. apartatuak xedatutakoarekin bat etorritik.

• Enpresak 50 langile baino gehiagorentzako enplegua ematen du, eta sexu-jazarpenari edo sexuagatik jazarpenari aurre hartu eta aurre egiteko neurriak ezarri ditu enpresan, estatu-legeek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritako moduan.

Enpresa-mota (markatu dagokiona):

– Enpresa ez da ez enpresa txikia ez ertaina, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioak enpresa txiki eta ertainez emandako definizioaren arabera.

– Enpresa txikia edo ertaina da, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioak mikroenpresez, enpresa txikiez eta ertainez emandako definizioaren arabera.

ETEn kasuan, adierazi enpresaren kategoria (dagokiona):

– ETE-mikroenpresa (10 enplegatu baino gutxiago; 2 milioi eurotik beherako urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra).

- ETE txikia (50 enplegatu baino gutxiago; 10 milioi eurotik beherako urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra).
- ETE ertaina (250 enplegatu baino gutxiago; 50 milioi eurotik beherako urteko negozio-bolumena edo 43 milioi eurotik beherako urteko balantze orokorra).
- Enpresaren kategoria, sozietateen gaineko zergan edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan islatzen dena, ez dela aldatu.
- Onuradunari lotutako enpresek jaulkitako fakturak aurkezten badira programan, faktura horiek ez dute gainkostu gehigarririk ekarriko dirulaguntzaren xede den programara.
- Onuraduna ardogintzako enpresa bada, adierazi, itxitako azken zerga-ekitaldiaren arabera, ardoaren sektoretik datorren fakturazio-ehunekoa.

Era berean, adierazi beharko da laguntza-eskabidea aurkezteak berekin ekarriko duela eskatzailearen baimena, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak automatikoki egiazta ditzan haren identifikazio-datuak (NANa eta IFK), eta zuzenean egiazta dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela, bai eta baimen hori espresuki ukatzeko aukera ere; kasu horretan, dagozkion agiriak eta ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.